


**BIZITEGI ERAIKINA**  
C MAILA**LARRAMENDI 2****Egilea eta data: Francisco Urcola, 1924****Deskribapena**

Eraikinaren barruko banaketa, jatorriz, oineko bi etxebizitzaz osatzen da. Eskailera eta patio zentralak ditu. Behe oina bi erabileratan bananduta dago atariaren bidez (bastarde lorategiduna pasealekurantz eta merkataritza-erabilera Prim kalerantz). Sei goi oin ditu, azkena atzeraemana. Fatxada neoplatereskoak azken oinari erliebe eta itzal handiagoa emateko ideiarri jarraitzen dio, eraikinaren gorputz nagusiarekin kontrastea eginez (gainazal eta egitura lauagoak ditu). Aldaketa laugarren oineko erlaitz haustiarekin hasten da, idulkien eta pilastren erliebe irtenen euskarri gisa, eta nabarmenago eraikinaren bi izkinetan. Balaustradak harlanduzko horman eta horren plano berean integratzen dira. Fatxadaren goialdeak bosgarren oinaren gai bera du, izkinetatik gertu dauden bolez errematatutako idulkietan garrantzi handiagoaz. Seigarren oina atzeraemanda altxatuta dago, eta nabarmendu egiten da eraikinaren siluetako gorantz doazen piezengatik eta izkinetan hegal handiagoa duten erlaitzen antolaeragatik (oinplano karratuko dorreak gogorarazten dituzte).

**Babes erregimena**

- 1.- Babes erregimen orokorra:  
Plan Berezi honen C babes mailan sartzearekin loturikoa.  
Testuinguru horretan, fatxadaren tratamendua, bertako bakoaren konfigurazioa, instalazio, publizitate elementu, seinale eta eguzki oihal, eta abarren ezarpena plan berezi honetako ordenantza orokorretan ezarritako babes maila hori arautzen duten irizpideetara egokituko dira. Hori guztia, gaur egungo egoera irizpide horiekin bat ez badator, eta babestu beharreko arkitekturako proiektuarekin bat etortzeko arrazoiengatik mantentzea justifikatzen ez bada.
- 2.- Berariazko babes erregimena:
  - A.- Babesetik kanpo utzitako fatxadaren elementuak edo zatiak: ez.
  - B.- Fatxadaren elementu edo zati iraunkorrak: harrizko harlandua eta dekorazio entokatua.
  - C.- Esku hartzeko murrizketa partikularrak: seigarren oineko goialdeko erremateak mantenduko dira.
  - D.- Nahitaezko lehengoratzak: ez, hala badagokio, aurreko aurreikuspenak betetzeari loturiko salbuespenen kalterik gabe, erregimen orokor hori arautzen dutenak barne harturik.